Entierro de la *Performance a varias velocidades*, Museo-Mausoleo, Cementerio de Arte, Morille, Salamanca, 2009. Argazkia/Foto: El Gallo

El tiempo que no(s) sucede

David Pérez

Si algo se puede afirmar con cierta seguridad sobre el trabajo artístico de Esther Ferrer es que son relativamente escasas las afirmaciones que de manera taxativa podemos efectuar sobre el mismo. Con excepción de un reducido número de cuestiones –pensemos, por poner unos meros ejemplos, en temas tan poco proclives a controversias como su fecha y lugar de nacimiento, o su integración en ZAJ durante 1967, o su pionera decantación por la investigación corporal en tanto que mujer, mujer-artista y mujer-artista-*performer*–, lo relacionado con su obra resulta, tanto a nivel histórico como hermenéutico, un territorio jalonado por dificultades e indeterminaciones de muy diversa índole. Esta apreciación resulta especialmente justificada no sólo si tenemos en consideración la información que sobre su propio trabajo proporciona la artista (“Nunca sé cuándo he hecho las obras. No firmo nunca mis obras, no pongo fecha”¹), sino también si partimos de los parámetros más habituales vinculados al análisis artístico (seriación cronológica de actividades, clasificación disciplinar, importancia legitimadora de la autoría, valor de la resolución técnica, independencia y/o autosuficiencia de los proyectos elaborados, materialidad y objetualidad de las propuestas, incidencia en el mercado del arte, etc.).

La dificultad que entraña llevar a cabo una aproximación aseverativa sobre su obra (“Hago lo que quiero, porque quiero, y me parece que el público puede hacer lo que quiera”), actitud a la que ha contribuido de manera constante y nada premeditada la autora, ya que su posición siempre ha guardado una estrecha relación con el modo de afrontar el fenómeno artístico en tanto que actividad integrada dentro del ámbito de lo cotidiano, se ve acrecentada por el hecho de que también suele ser habitual enfrentarnos a muchas de sus propuestas sospechando –para nuestra mayor desesperación metodológica– que pese a tener un registro fotográfico, sonoro o visual, las mismas se han podido concebir no como tales, sino como una acción o un objeto que, desarrollados –aunque no siempre– a partir de una frágil y perentoria maqueta, han podido resolverse y/o presentarse –si es que así ha sucedido, ya que tampoco aquí existe una pauta prede-

1. Las referencias textuales de Esther Ferrer utilizadas en el presente texto corresponden, salvo indicación contraria, a fragmentos de la entrevista que la artista mantuvo con Rosa Olivares y nosotros mismos en la Facultad de Bellas Artes de Valencia. La misma fue publicada en DVD bajo el título *Querer hacer, querer comprender*, Editorial de la Universitat Politècnica de València, 2007, 120’.

tzungo bailioke soilik (eta alderdi horrek Erik Satie-ren eta John Cage-ren herabetasunik gabeko ondarearekin loturiko freskotasunaren eta dogmatismorik ezaren arrastoari jarraitzeko bidea ematen digu)–, ez gintuzke eraman beharko sustrai erromantiko-idealista duen hutsegite bat egitera, hots, ziurtasunik ez dugunez eta/edo ditugunak txit hutsala denez, Esther Ferrer-en lanari buruz ezin dela ezer esan nahiz teorizatu. Horri dagokionez ez da ahaztu behar bere proposamenen egitura eta kontraegiturekin guttiz kontrakoa gertatzen dela, gogoeta eta hitz jariora eragiten baitituzte, eta hori, badakigun arren –edota dakigunagatik, hain zuzen ere–, proposamen horien bidez jasotzen dugunak arrazoibide murriztu eta mugatuetara baik ez garamatzatela, nolana dela ere, zentzu uzkur hori gorabehera batiere garrantzirik gabeak ez direlarik.

Horrela, esandakoaren ahultasuna onartzeak eta haren eraginkortasunaren ustezko urritasuna aitortzeak ez dio argudioari indarririk kentzen, aitzitik gutxienekoaren ezagutza batera hurbiltzen gaitu, oso gauza hutsaletan, baina ez horregatik garrantzi gabeetan, oinarrituko dena, esate baterako: aulki batzuk, galtzadarri gutxi batzuk, graduatutako betaurreko sorta bat, irudi multzo bat, gerrakoaren eta falikoaren artean dauden jostailu batzuk –bereizketa hori egin ahal badaiteke–, hari kopuru zehaztugabea, eta ezer gutxi gehiago. «Askoz gutxiago» abiapuntu harturik egindako «zertxobait gehiago», zeinaren bidez neurritasunean eta mamian oinarritutako solas bat ebakitzen baita, konstante jakin batzuk aurkitzen ditugun solas bat, zeinen inguruan gutxienekoaren ezagutza jakin ahal dezakegun gehien bihurtzen baita. Eta egoera horrek, hutsala eta bazterrekoa dena funtsezko bihurtzen duen ezagutza bat akuilatzen du, alferrekoa dena beharrezko eta erreus dena ezinbesteko. Hala ere, ezagutza murriztu honek zentzu beteago bat izan dezan, gure artistak ordu asko eta lan asko eskaini dizkion denboraren inguruan egin eta desegin behar da. Eta ziurtasunez inoiz jakingo ez dugun arren gehiegi izan diren edo ez, hori ez da oztopo nahikoa direla uste izan dezagun, denborazkoaren presentziak etengabeko protagonismoa izan baitu bere lanean, era batera edo bestera. Ildo horretan, dagoeneko aipatu dugun elkarrizketan Esther Ferrer-ek zioen, burlaize errez, denborarekiko harremana zertxobait deserosoa gertatzen zaiola –are gehiago, «oso txarra» zela ere esan zuen– bere burua beti «haren atzetik lasterka» ikusten duelako. Eta guk gaineratzen dugu, hori bere ekintza askotan lasterketaz eta tokialdatzeaz egiten duen erabilerarekin lotu ahal izango litzatekeela, zeharbidez bada ere. Nolanahi dela ere, teilakatze anekdotiko



terminada– como una instalación, o una intervención, o simplemente como una escueta formulación verbal.

La escurridiza situación descrita, un contexto en el que todo es posible, dado que lo imposible únicamente responde a una hipotética razón de naturaleza contrafáctica –aspecto que nos permite rastrear la frescura y el antidogmatismo asociados a la desenfadada herencia de Erik Satie y John Cage–, no debe llevarnos a cometer el error, de raigambre romántico-idealista, de pensar que, puesto que carecemos de certezas aseverativas y/o de que las mismas poseen un carácter decididamente banal, nada puede ser dicho ni teorizado sobre el trabajo de Esther Ferrer. Al respecto, no conviene olvidar que lo que en verdad sucede con las hechuras y contrahechuras de sus propuestas es todo lo contrario, puesto que concitan la reflexión y el habla, y ello aunque sepamos –o precisamente debido a que lo sabemos– que lo obtenido a través de las mismas tan sólo permite el acceso a unos menguados y restringidos dominios discursivos que, no por su apocado sentido, van a verse despojados de relevancia alguna.

De este modo, asumir la debilidad de lo afirmado y reconocer la pretendida penuria de su eficacia, no cercena fortaleza argumentativa alguna, ya que nos aproxima a un saber de lo mínimo que va a encontrarse fundamentado en elementos de índole tan trivial, aunque no por ello menos determinante, como algunas sillas, unos pocos adoquines, diversas gafas graduadas, un conjunto de siluetas, varios juguetes que coquetean entre lo bélico y lo fálico –si es que es posible establecer tal disociación–, una imprecisa cantidad de hilos y muy poco más. Un poco más, elaborado a partir de un mucho menos, a través del que se articula un decir sustentado en lo parco y esencial, un decir en el que hallamos determinadas constantes discursivas en torno a las cuales el saber de lo mínimo se convierte en lo máximo que nos es dado saber. Circunstancia que estimula un conocimiento en el que lo nimio y periférico se transforma en sustancial, lo inútil en necesario y lo inservible en inexcusable. Sin embargo, para que este saber demediado adquiera su sentido más pleno, se requiere un hacer y deshacer sobre el tiempo al que nuestra artista ha dedicado muchas horas –y también bastantes obras. Y aunque nunca sabremos con certeza si éstas han sido demasiadas o no, ello no constituye obstáculo alguno para que podamos considerar las mismas como suficientes, dado que la presencia de lo temporal ha contado en su trabajo con un protagonismo tan diverso como permanente.




hau gorabehera, artistak aipatzen duen eseste ero eta desorekatu horren arrazoa interes asmotsu baina hutsala da: denbora harrapatu ahal izatea eta, horrela, estrategia horren bidez «eguneratzea» lortzea.

Ahalegin horren antzutasuna aurretik ezagutu arren, Eleako Zenonek Akilesen eta dortokaren arteko alegiazko lasterketa haren bidez planteatu zuen paradoxa zahar haren arrastoa hauteman dezakegu. Norgehiagoka hartan, gogora dezagun, «oin arindun» heroia keloniarra harrapatzen ahalegindu arren, azken hau, lasterketaren hasieran abantaila labur batekin abiatua baitzen, elezaharretako lasterkariaren aurretik egongo zen beti, izan ere, Akiles dortoka egondako tokira iristen zenean, dortoka aurrerago egongo baitzen –distantzia labur batez bazen ere–, puntu harekiko. Distantzia horrek, argudiatzen zuen Zenonek areago, hor jarraituko zuen egiaztatze guztietan. Hori dela eta, Akiles bere higieran nahi adina zalu eta maltzur izanik ere, narrasti patxadatsuen atzean aurkituko zen beti eta bigarren mailako tokian egongo, gure artistari denborarekiko bere lasterketa berezian gertatzen zaion bezala. Berak nabarmendu duen eran, garbi dago denborarekiko bere tokia zein den: alferrik, beti haren atzean ibiltzea.

Esandakoa gorabehera, bada ohartzeko geratu behar ez duen gauza bat: Zenonek planteatzen duena ez da paradoxa hutsa baizik. Greziar filosofo honek berak horren antzeko aporia bat botu zuen gezi baten sasiko mugikortasunari buruz: bere ibilbidean eta denbora zehatz bakoitzean toki jakin eta zehatz batean aurkitzen denez, bere ibiltarteko une bakoitzean geldirik dago, ezinbestean. Gelditasun hori, bitxiki, Esther Ferrer-en *Las cosas performance*ko objektu (geldi?) haietan ere hautematen duguna bezain kontraesankorra eta garrantzigabea da. *Performance* hartan, inolako adierazpen asmorik gabe eta hitzik esan gabe, Esther Ferrer bere buruaren gainean gauzak utziz doa, bien bitartean *off*-eko ahots batek zenbat minutu igaro diren adierazten duela.

Hala ere, gure artistarentzat denborarekiko harremana gai nahiko korapilatsua den arren –eta Akilesi gertatzen zaion bezala beti aurretik duen– denboraren erreferenteak garrantzi nabarmena du –ia obsesiboa– bere lan askotan. Gai horren nonahikotasuna *performance*ekin loturiko proposamen haietan nabarmentzen da bereziki. Egileak berak «denboraren, espazioaren eta presentziaren artea» dela baitio eta, beraz, ezinbestean zoriarekin eta ezustekoarekin batera bizi den artea. Elkarbizitza hori dela eta, bestalde, *performancea* «lan irekien artean nagusi»-tzat jo daiteke



El tiempo de la performance,
Quebec, 1990.

Argazkia/Foto: F. Bergeron






En este sentido, en la entrevista a la que ya hemos hecho referencia con anterioridad, Esther Ferrer comentaba, no sin cierto sarcasmo, que la relación que mantenía con el tiempo le resultaba un tanto incómoda –es más, llegaba a decir que incluso era bastante “mala”–, debido a que siempre se percibía “corriendo detrás del mismo” –hecho, añadimos nosotros, que podría enlazarse, aunque fuera de manera tangencial, con la utilización de la carrera y del desplazamiento en muchas de sus acciones. Ahora bien, con independencia de este anecdótico solapamiento, el motivo de la alocada y desigual persecución al que la artista aludía, respondía a un ocurente aunque vano interés: el deseo de poder dar alcance al tiempo y así, a través de la estrategia emprendida, conseguir “ponerse al día”.

Aunque conociéramos de antemano lo estéril del intento, podemos detectar en él una huella de aquella antigua paradoja que Zenón de Elea planteaba a partir de la hipotética carrera entre Aquiles y la tortuga. En dicha pugna, recordémoslo, por mucho que el héroe *de los pies ligeros* se esforzara en alcanzar al quelonio, éste, que había partido con una ligera ventaja al inicio de la competición, siempre iba a hallarse situado por delante del legendario corredor, ya que cuando Aquiles alcanzase el lugar en el que la tortuga se encontraba, la misma habría variado su posición avanzando, siquiera fuera una mínima distancia, en relación a dicho punto; distancia, continuaba argumentando Zenón, que iba a seguir existiendo en todas las sucesivas comprobaciones. Debido a este hecho, por muy veloz y astuto que fuera Aquiles en su desplazamiento, siempre iba a descubrirse por detrás del parsimonioso reptil, ocupando, por tanto, una posición secundaria, muy semejante a la de nuestra artista en su particular carrera con el tiempo, dado que, según ella misma había puesto de relieve, su lugar en relación a éste no admitía ningún tipo de dudas: estar yendo inútilmente a su zaga.

A pesar de lo apuntado, no obstante, hay un hecho que no debe pasarnos desapercibido: lo planteado por Zenón no es más –ni tampoco menos– que una mera paradoja. Una aporía similar a la que el propio filósofo griego formula en relación a la espuria movilidad de una flecha que, puesto que en su recorrido siempre está ocupando un determinado y preciso espacio durante un tiempo que también es determinado –y ello, por escaso que éste sea–, no puede, por tal motivo, más que hallarse en reposo a lo largo de cada uno de los instantes que emplea en su trayectoria. Curiosamente, en un reposo tan contradictorio e intrascendente como el que también constatamos en esos objetos (¿inmóviles?) que, en una *perfor-*



Al ritmo del tiempo,
Muga Caula Jaialdia,
La Muga, 2009.

Al ritmo del tiempo,
Festival Muga Caula,
La Muga, 2009.
Argazkiak/Fotos:
Joan Casellas




Al ritmo del tiempo, Bastille Antzokia, Paris 1984.

Al ritmo del tiempo, Teatro de la Bastille, Paris, 1984. Argazkiak/Foto: Matilde Ferrer

eta, beraz, «inolako dogmarik ez duen» lantzat, «une jakin batean eta toki jakin batean gertatzen dena» izateko xedea baitu. *Site-specific* eta *time-specific* ideiak elkartzen dituenez gure aldetik halako arreta bat eskatzen duen gertatze bat, dudarik gabe.

Denboraren eta espazioaren erreferentziak –hau da, Kantek ere intuizio huts gisa aipatzen dituen sentimenaren *a priori*-ko forma horiek, ez baitute jatorri enpirikorik– konotazio berezia dute Esther Ferrer-entzat. Ekintzaren bidez bilatzen denak ezinbestean hitz horien berrikuste bat eskatzen duela –eta, beraz, haien halako destokitze bat–, nabarmentzeko egin-kizuna duen konotazioa. Kanten arabera munduaz dugun esperientzia dagoeneko aipatu diren sentimenaren *a priori*-ko forma horien esparruan gertatzen bada, *performancean* denbora bera eta espazioa dira gertatzen denaren funtsezko zentzua beren gain hartzen dutenak –eta ez, hainbeste, gertatzen denaren kontestu izaera. Eta zentzu horrek –presentzia sahitsezin batek mugaturik–, dakar lehen aipatu dugun destokitze hura. Horrela, destokitzeak berak lehen bere tokian kokaturik zegoenaren bestelakotzea ez ezik, desegite paradoxiko baten protagonista ere bada –tokiarekiko eta denborarekiko–, espazioa eta denbora berriz irakurtzeko xedez, hain zuzen ere. Eta prozesu horrek esperientzia enpirikoaren aurreko intuizio huts gisa ez ezik funts lohi gisa taxututako irakurketa bat finkatzea ahalbidetzen du edota, nahiago bada, araztasun funsgabe gisa, hots, *a posteriori* sortutako ezagutza gisa, eta horregatixe, esperientziatik isuritako izaera kontingentea duena.

Esperientzia posible den denbora-espaziozko esparruaren ideia ondoan –esperientzia horren baldintza *sine qua non* den aldetik–, ekintza esperientziaren esparrua bera zalantzan jartzeko zurigarri gisa interpreta



Al ritmo del tiempo-ren bertiso baten partitura.

Partitura de una versión de Al ritmo del tiempo.



Al ritmo del tiempo-ren partitura.


Partitura de Al ritmo del tiempo 2.

mance como *Las cosas*, Esther Ferrer va poco a poco depositando, sin afán expresivo alguno y guardando un absoluto silencio, sobre su cabeza, mientras una voz en *off* recuerda la duración de los minutos transcurridos.

Sin embargo, pese a la que la relación con el tiempo resulte un tanto conflictiva para nuestra artista –y que al igual que sucede con Aquiles siempre se ve sobrepasada por el mismo– no por ello el referente temporal deja de tener una evidente relevancia –casi podría decirse que obsesiva– en muchos de sus trabajos. Esta insistencia temática se constata de una manera especial en aquellas propuestas que se vinculan a la *performance*, actividad definida por la propia autora de manera recurrente como “un arte del tiempo, del espacio y de la presencia” y, por ello, como un arte que necesariamente convive con el azar y el accidente. Dicha convivencia, a su vez, propicia el que la *performance* pueda considerarse como “la obra abierta por excelencia” y, por consiguiente, como la obra en la que “no hay ningún dogma” posible, ya que se encuentra destinada a ser “lo que pasa en un momento dado y en un lugar dado”. Un pasar, sin duda alguna, que, al combinar la noción de *site-specific* junto a la de *time-specific*, reclama por nuestra parte una cierta atención.

Las referencias al tiempo y al espacio –es decir, a esas formas *a priori* de la sensibilidad a las que Kant también alude como intuiciones puras, ya que carecen de un origen empírico– poseen para Esther Ferrer una peculiar connotación. Una connotación destinada a poner básicamente de relieve el hecho de que lo buscado mediante la acción conlleva una necesaria relectura de dichos términos y, por ello, una cierta dislocación en los mismos. Si en Kant nuestra experiencia del mundo sólo se da dentro del marco de esas citadas formas *a priori* de la sensibilidad, en la *performance* son el propio tiempo y el espacio quienes asumen no tanto el carácter contextual de lo que sucede, como su sentido sustancial, un sentido que –determinado por una insoslayable presencia– conlleva esa dislocación a la que nos referíamos. De este modo, el hecho mismo de dislocar no sólo suscita una alteración en aquello que con anterioridad se hallaba colocado, sino que también protagoniza una paradójica descompostura –con el lugar y con el tiempo– destinada, precisamente, a poder leer de nuevo el espacio y el tiempo, proceso que permite establecer una lectura concebida no ya como intuición pura –previa a la experiencia empírica–, sino como impura consistencia o, si se prefiere, como inconsistente pureza, es decir, como conocimiento surgido *a posteriori* y que, por ello mismo, posee un carácter contingente derivado de la experiencia.

Frente a la idea espacio-temporal como marco en el que la experiencia es posible –en tanto que condición *sine qua non* de la misma–, la acción puede ser interpretada como coartada para una puesta en crisis del propio marco de la experiencia, es decir, como cuestionamiento que invita a la elaboración consciente de una mirada crítica dirigida a la crítica de la





Performance a varias velocidades,
Kanaria Handiko Las Palmas, 1986.

Performance a varias velocidades,
Las Palmas de Gran Canaria, 1986.
Argazkia/Foto: F. Janicot

daiteke, hau da, hautematearen kritikara bideratutako begirada kritiko baten lantze kontzientera gonbidatzen duen zalantza jartze gisa. Bai alde fisikoari eta bai kontzeptuzkoari dagokien interes analitiko honek –hautemateak ez baitie zentzumenei bakarrik eragiten, baita zentzu nozioaren atzean dauden zentzuei ere– zeharkako eragina izan du laukiaren ideian eta, are, haren presentzia fisikoak artistaren ekoizpenean hartu duen izaera errepikarian. Ekar dezagun gogora, esate baterako, *En el marco del arte (Dans le cadre de l'art)* izeneko instalazioa, 1999. Urtean Veneziako XLVII. Biurtekoan aurkeztua. Instalazio hartan, *tableau vivant* garaikide baten eran benetan zeharka zitekeen lauki bat eratzen zuen moldadura erraldoi eta arranditsu baten erabilerak –zeina, gainera, edozein proposamen emaitza instituzionalizatu bihurtzen zuen testuinguru baten barruan kokatzen baitzen–, horrelako gertakizun baten ofizializazioari buruz gogoeta egitera gonbidatzeaz gainera, legitimazio artistikoko esparru hartan ikusleek zuten eginkizuna ere gogoetagai bihurtzen zuen.

Aipatu berri dugun kasuan, hautemateak ikusmena erabiltzea baino gehiago, bisualizazio-ariketa bat egitea suposatzen du, sentiberatasunaren *a priori*-ko forma berritza –adierazpidearen arintasuna zilegi bazaigu– jo ahal izango litzatekeena nabarmentzeko xedea izango lukeena. Forma hori esparru instituzionalak eratuko luke, artearen ahalbidetasunaren baldintza (beharrezkoa?) baita. Hala ere, egoera hori alde bat utzirik, hautemateak kronoanalisi ere eragiten du, hau da, denborazko gogoeta; denborarekin loturik eta denboran gaudela jakiteak, geure buruaren ezagutze-destokitu batera gonbidatzen gaitu, hau da, konposizio desegin batera edota, are, deskonposaketa konposatu batera.

Guztiarekin ere, begien bistakoa bada ere denborak desegin egiten duela, hori bezain egia da berregiteak denbora eta ahalegin berbera eskatzen duela, konposaketa oro bere egonkortasun aizunean eratzen dela susmatzen denean, bereziki, behin-behineko eta premiazko emaitza den aldetik. Ikuspuntu honetatik denborarekin loturik gaudela aitortzeak geure buruak amaitugabeak direla onartzea suposatzen du, besteak beste, hau da, zentzuen gurutzebide gisa ari den lan ireki gisa berregitea eta, beraz, denboren distiratik eta gainjartzetik baizik landu ezin den nortasun baten



La primera media hora, Fuera de formato, Madrid, 1983.

La primera media hora, Fuera de formato, Madrid, 1983.

percepción. Este interés analítico que afecta tanto a lo físico como a lo conceptual –dado que percibir atañe no sólo al sentido que poseen los sentidos, sino también a los sentidos que subyacen a la noción de sentido– ha incidido de una manera colateral en el hecho de que la idea de marco e, incluso, la presencia física del mismo, haya adquirido un carácter recurrente en la producción de la artista. Pensemos, por ejemplo, en una instalación como la titulada *En el marco del arte* (*Dans le cadre de l'art*), intervención presentada en 1999 dentro del propio marco –valga la redundancia– de la XLVIII Bienal de Venecia. En dicha instalación, el empleo de una pomposa y gigantesca moldura que generaba, a modo de contemporáneo *tableau vivant*, un cuadro realmente transitable –que, a su vez, se enmarcaba en el interior de un contexto que transformaba en resultado institucionalizado cualquier propuesta– invitaba a reflexionar no sólo sobre la oficialización de un evento de esta naturaleza, sino también sobre el papel desempeñado por espectadores y espectadoras dentro del citado marco de legitimación artística.

Percibir, en el caso que acabamos de mencionar, supone efectuar no tanto una ejercitación de lo visual, como un ejercicio de visualización, ejercicio destinado a poner de relieve lo que podría considerarse, si se nos permite la ligereza de la expresión, como una nueva forma *a priori* de la sensibilidad, forma que es configurada por el marco institucional, ya que el mismo actúa como condición (¿necesaria?) de posibilidad artística. Ahora bien, al margen de esta circunstancia, percibir también concita un cronoanálisis, una reflexión temporal que, concebida como un saberse sujeto al tiempo y en el tiempo, nos invita a un dislocado reconocerse, es decir, a un crítico y desubicado averiguarse en tanto que composición descompuesta –o, incluso, en tanto que descomposición compuesta.

Con todo, si el tiempo es evidente que descompone, no menos cierto es que el hecho de componerse requiere, si cabe, igual de tiempo y dedicación, especialmente cuando se sospecha que toda composición se configura en su falsa estabilidad como resultado provisional y perentorio. Desde esta perspectiva, reconocernos sujetos al tiempo supone, entre otros aspectos, asumirnos como inacabados, o sea, recomponernos como obra abierta que actúa como cruce de sentidos y, por ello, como cara y cruz de una identidad que sólo se elabora desde el destello y la superposición de tiempos. Al igual que sucede con las *performances*, en las que la simultaneidad de temporalidades concita, según apunta Esther Ferrer, una diversificada y plural coexistencia de tiempos paralelos (“En una *performance* está el tiempo cronológico, el compromiso temporal que todos aceptamos. Pero luego está mi tiempo y está vuestro tiempo, el tiempo del otro... Y, luego, está el ritmo interior de la *performance*”).

Ahora bien, sea cual sea el registro temporal en el que nos situemos, la evidencia de lo inacabado pone en relieve el carácter contradictorio de

aurki eta gurutze gisa. *Performance*ekin gertatzen den eran, zeinetan denboraren aldiberekotasunak, Esther Ferrer-ek dioen bezala, aldi bereko denboren elkarbizitze askotariko eta plurala eragiten duen («*Performance* batean denbora kronologikoa dago, guztiok onartzen dugun denboraren konpromisoa. Baina gero nire denbora dago, eta zuen denbora, eta bestearen denbora... Eta, gero, *performance*aren barne erritmoa dago»).

Nolanahi dela ere, zeinahi dela ere kokatzen garen denboraren errejistroa, amaitugabearen begi-bistakotasunak lan ororen izaera kontraesanorra nabarmentzen du eta, beraz, konposizio ororen –baita identitatearena ere– zentzu paradoxikoa. Aurreko paragrafoetan azpimarratu den eran, *performance*az aritzeak une jakin bat eta toki jakin bat aipatzea suposatzen du. Hau da, gauden denbora eta tokiabiapuntu hartzea. Gainerakoa, gainerakoak –Esther Ferrer-i dagokionez itxuraz garrantzirik gabeko eguneroko traste batzuk, kaleetan barrenako ibilbideak, gorputzari dagozkion neurketa batzuk, hamarnaka eta hamarnaka lehen zenbaki–, pixkanaka hemen-orainaren pisuari zehaztasunez gaineratzen zaion errealitatea besterik ez dira. Ezer gutxi gainera dakion hemen-oraina, ondare ziurtasun urria.

Hori dela eta, ekintzen esparrua eratzen duten metaobjektuzko oihartzunek –gertatzen denaren berehalakotasunak eta orainaren errealitateak eutsirik– adierazgarritasun nozio oro apurtzen dute. Apurtze hori aitortzeak, egiantzeko denaren bazterketa onartzeak ahalbidetzen du *performance*aren bidez antzerkiaren denbora eta konotazio orotik urruntzea, ekintzan ikusitakoa, hau da, agertzen diren objektuak, marrazten diren ibilbideak, errepikatzen diren keinuak, markatzen diren erritmoak... laburbilduz, bertan bizitakoa ez da, zentzu hertsian, ikusitakoa, partekatutzat joahal izango genukeena baizik, hau da, guztien parte hartzearekin ikusten ari garen gertakizuna –atziperik eta amarru-irudirik gabe gertatzen dena– fikziorik gabea eta parabolarik gabea dela badakigun denbora batean eta espazio batean gertatzen aritzea ahalbidetzen duena.

Mimetikoa denaren –irudikatutakoaren– kontakizuna egiteko astirik gabe, Esther Ferrer-ek presentzia baten hemen-orainean, *hic et nunc* delakoan kokatzen gaitu, eta presentzia horrek ezinezkoarekin jolasten badu ere, edota konta daitekeena eteten badu ere, maskararik gabeko gertatze bat du beti aipagai. Itxurak egitetik babestu eta moztortzearen aurkako, hau da, antzeratzera herabe nortasun iruzurrarekiko ez esaneko den hizketa batetik eratzen den gaineratze bat, horrela esan nahi bazaio. Artistaren ekinak, beraz, denboraren iraganean bizi den eta hor dagoen arte bat pizten du, ez gure begiradaren aurrean kokatzen den izaki sarkin edota gure begiradari aurre egiten dion objektu gisa, ikustean integratzen den eta nahasten den eta, ikuste hori taxutzean zentzua ematen dion elementu gisa baizik. Azken batean, haren proposamenak bereizezintasunaren mintzaldia idazten du eta, hori egitean, mundutik bereiz ezin den –toki-denborazko– errealitate gisa definitzen gaitu, han izanda baizik ez baitugu geure burua aurkitzen.



Performance a varias velocidades, Langer Samstag-Eine Hommage an die lange weile, Künstlerhaus Schloss Wiepersdorf, Alemania, 1997.




toda obra y, por ende, el sentido paradójico de toda composición –incluida también la identitaria. Según se ha puesto en relieve en párrafos precedentes, hablar de la *performance* supone aludir directamente a un momento dado y a un lugar preciso. Es decir, tomar como punto de partida el tiempo que transcurre y el espacio en el que nos hallamos. El resto, los restos –en el caso de Esther Ferrer, algunos enseres cotidianos cuya aparente relevancia es escasa, diversos recorridos callejeros, ciertas mediciones que afectan al cuerpo, decenas y decenas de números primos–, no constituyen más que una realidad que de manera precisa va paulatinamente agregándose al peso del aquí y al paso del ahora. Un aquí y un ahora, exigua certeza patrimonial, a la que poco más cabe añadir.

Ikuspuntu honetatik esan ahal izango litzateke *performancea*, objektuzko zentzu orotik urrun mantentzean, esperientzia gisa aurkezten zai-gula, hau da, tenkatzen gaituen tentsio gisa eta, beraz, kontatzearen bidetik ibili beharrean gertatzearen bidetik dabil. Horregatik, lan zehatz askotan gertatzen den bezala, amaiera ematen zaila da. Horren ildotik, ekar deza-gun gogora, *Silla ZAJ* (1973) lana –zeinetan bai baitirudi heriotza dela behin betiko amaiera iradokitzen duen bakarra–, edota *Cara y cruz performancea*, egina baina amaitu gabea, zeinetan artistak eskuz margotzen baititu txanpon batzuk gero ikusleei botatzeko. Azken proposamen honi dagokio-nez eta handik gutxira Koldo Mitxelena Kulturunean (1997) egin zen era-kusketako katalogoan Esther Ferrer-ek berak idatzi zuenez, *performancea* Georges Pompidou zentroan hasi zen orain dela urte asko, eta oraindik ez da amaitu.

Bere garaian erabakitasunik-ez hori eragin zuen arrazoia –eta gaur egun oraindik ere daragiena– argi eta garbi dago, lana amaitzea –haren be-netako amaiera fisiko eta kontzeptuala– baldintza bakar baten baitan bai-tago: ekintza horretarako egileak margotu dituen txanpon horietako bat edo beste bere eskuetara itzultzea. Balizko gertakizun horren zain –gero eta ger-tagaitzagoa, dena den, *performancean* erabilitako txanponak ez baitira jada legezkoak–, lana bere irekitasunetik eta amaigabetasunetik abiatu-rik taxut-zen da, eta hori dela eta, Zenonek aipatzen zuen gezi geldi hura protagonista zen egoera gogora dakargun atsedenaldi paradoxiko batean dirau.


Litezkeen beste irakurketa batzuk alde bat utzirik, bere izaera amai-gabeak artistarentzat denborak –elementu konplize desiratua den aldetik– duen zentzu eraikitzailea nabarmentzeko bidea ematen duelako aipatu dugu lan hau. Zentzu hori *performancearen* jardueran erabiltzen den in-guruak berezkoa duen arren («inguria denboraren hautematea ere bada»), harago doa.

Hemen planteatzen zaigun denborazkotasunak halako plus bat eskatzen du, hau da, denborazkotasun horretan kontzienteki bizitzea eskatzen duen egitatean oinarritutako gehigarri bat. Denboraren erabilerak inplikaziotik eta presentziazatik esate bat eta egite bat suposatzea eragiten du kontzientzia horrek –objektuak, instalazioak, argazkiak, nahiz ekintzak erabiltzearen bidez–, egitea den esate bat eta, erreferentziarik gabeko esate soil batetik abiatuz, bere ibiliaren kontakizunean bildurik dagoen egite bat. Horrela, beste batzuetan nabarmendu ahal izan dugun eran, denboraren presentzia prezentzien denbora bilakatzen da, zeinaren bidez denboraren eta denborazkoa denaren artean elkarrizketa bat –ez derrigorrez orekatua– sortzeko gonbidapena luzatzen zaigun, hau da, greziar pentsaera klasikoak Kronos-en eta Kairos-en artean egiten zuen bereizketaren bidez nolabait aditzera ematen zuen haren artean –dena eraentzen eta irensten duen denboraren eta, Kronosi itzuri eginez aukera eskaintzen duen unearen (momentu eta toki gisa eta, beraz, presentzia ekidin ezin gisa, taxaturik



El hilo del tiempo-ren partitura.

Partitura de *El hilo del tiempo*.



El hilo del tiempo-ren partitura,
xehetasuna.

Partitura de El hilo del tiempo,
detalle.

Debido a ello, las resonancias metaobjetuales que configuran el ámbito de las acciones –sustentadas en la inmediatez de lo que acaece y en la realidad de lo presente– fracturan cualquier noción de representatividad. Reconocer dicha fractura, asumir el abandono de lo verosímil, es lo que permite que a través del discurso performático nos alejemos de todo tiempo y connotación teatrales, dado que lo presenciado en la acción, es decir, los objetos que concurren, los recorridos que se trazan, los gestos que se reiteran, los ritmos que se marcan..., en definitiva, lo vivido en la misma, no es en un sentido estricto lo visto, sino lo que se podría considerar como compartido, o sea, aquello que, desde la coparticipación, hace posible que el suceso al que se está asistiendo –un suceso desarrollado sin trampas ni trampantojos– se encuentre aconteciendo en un tiempo y en un espacio que sabemos despojados de ficción y desnudos de parábolas.

Sin margen alguno para el relato de lo mimético –para el saber de lo representado–, Esther Ferrer nos sitúa en el aquí y en el ahora, en el *hic et nunc* de una presencia que, aunque juegue con lo imposible o trunque lo narrable, siempre remite a un ocurrir carente de máscaras. Un sobrevenir, si así se desea denominarlo, que se configura desde un habla que es inmune a la simulación y contraria al disfraz, es decir, reacia al fingimiento y díscola con la impostura. El hacer de la artista, por consiguiente, activa un arte que vive en el transcurso del tiempo y que está ahí, no tanto como ente intruso que se sitúa ante nuestra mirada o como objeto que se enfrenta a la misma, sino como elemento que se integra y confunde en el ver y que, al configurarlo, lo dota de sentido. En última instancia, su propuesta escribe el discurso de la inseparabilidad y, al hacerlo, nos define como realidad –espacial y temporal– indisoluble del mundo, una realidad de la que no podemos desgajarnos, puesto que tan sólo nos encontramos siendo en ella.

Desde esta perspectiva, se podría señalar que la *performance*, al mantenerse alejada de cualquier sentido objetual, se nos presenta como experiencia, es decir, como tensión que nos tensa y, por tanto, como arte que transita no por el camino del contar, sino por los derroteros de un acontecer que, como sucede en muchas obras concretas, resulta complejo de clausurar. Recordemos, al respecto, una pieza como la *Silla ZAJ* (1973) –en la que sólo la muerte parece sugerir una definitiva finalización– o una *performance* como *Cara y cruz*, obra realizada aunque inacabada, en la que la artista pinta a mano unas monedas con el objetivo de que éstas sean lanzadas al público. En relación a esta última propuesta, y según escribió la propia Esther Ferrer en el catálogo de la exposición celebrada tiempo después en el Koldo Mitxelena (1997), la *performance* fue iniciada “en el centro Georges Pompidou hace ya muchos años y todavía no ha terminado”. La causa que en su momento originó esta irresolución –y que en la actualidad todavía la motiva– no deja lugar a dudas, ya que la finalización de la obra –en verdad, aquello que supondría su definitiva clausura física y concep-

inoiz iristen ez den eta beti igarotzen den errealitate atzietzen eta lainotsu hori) artean.

Nolanahi dela ere, aurreko paragrafoetako batean esan berria dugu ekintzak saihestu egiten duela kontatzearen bidea, baina Esther Ferrerengan narrazioaren arbuioari denbora kontatze batek lagun egiten dio eta, bitxiki, une zehatz batzuetan kontatze zehatz bat lotzen zaio. Kontatze hori inola ere ez da kontatzea, eta anekdotazkoaren narrazioa eta xehetasunari buruzko hausnarketa bilatzen ez duenez, fabulazio oro jartzen du zalan-tzan, eta horrek kontatze bat berreskuratzea ahalbidetzen du –zenbaki baten aipatze gisa ulertua– denboraren inguruan biratuz zenbatzearen eta bana-banaka aipatzearen espazioari loturik geldituko dena. Hori dela eta, dagoeneko aipatu den *Las cosas* ekintzan, artistak bata bestearen ondoren, erregulartasunez eta eszeptizismo espresiboz –ez, haatik, ezaxolarik gabe– bere buruaren gainean jartzen dituen objektuek –ekintza batetik bestera aldatzen direnak, bai hurrenkeraz eta bai edukiz, *performancea* egiten den une zehatzaren arabera– ez dute errealitate bat deskribatzeko xederik eta ezta gertakizunik aipatzekoa ere, baizik eta beren denboran zehar gertatze hutsa eskaintzea, hau da, beren jardute biluzia erakustea eta gurea ere baden toki batean beren gertatze laburra destolestea.

Zentzu horretan, igarotzen ari den denbora zenbatu eta bere bana-banaka aipatze hutsean kontatzeak kontzeptua argitzea eskatzen du, batez ere kontuan hartzen badugu artistak zenbaki lehenekin egiten dituen lanekiko interesarekin lotzen duela zuzenean jarduera hori (izan ere «zen-





Performance a varias velocidades
delakoaren ehorzketa, Museo-Mausoleo,
Cementerio de Arte, Morille,
Salamanca, 2009.

**Entierro de la *Performance a varias*
velocidades, Museo-Mausoleo,
Cementerio de Arte, Morille,
Salamanca, 2009.**
Argazkiak/Fotos: El Gallo

tual— sólo depende de una circunstancia: el retorno a las manos de la autora de alguna de las piezas pintadas por ella misma para realizar la acción. A la espera de este hipotético hecho —cada vez más improbable, puesto que ni tan siquiera son ya legales monedas similares a las utilizadas en la *performance*— el trabajo se configura desde su apertura e inconclusión, permaneciendo por ello en un paradójico reposo que, no sin inquietud, nos retrotrae al detenido estado protagonizado por aquella flecha inmóvil a la que se refería Zenón.

Al margen de otras posibles lecturas, si traemos a colación esta obra se debe a que el carácter inacabado que la misma presenta, permite poner de relieve el sentido constructivo —en tanto que deseado elemento cómplice— que el tiempo posee para nuestra artista, un sentido que, pese a ser inherente al propio medio utilizado en la actividad performativa (“El medio es también la percepción del tiempo”), en realidad va más allá de la misma.

La temporalidad que aquí se nos plantea reclama un cierto plus, un suplemento sustentado en el hecho de que la misma requiere no tanto ser habitada, como conscientemente habitada. Consciencia que suscita que la utilización del tiempo suponga un decir y un hacer desde la implicación y la presencia —ya sea mediante el uso de objetos, instalaciones, imágenes fotográficas, acciones...—, un decir que sea hacer y un hacer que, partiendo de un escueto y arreferencial decir, permanezca centrado en el relato de su propio transcurso. De este modo, tal como en otras ocasiones hemos tenido oportunidad de poner de relieve, la presencia del tiempo se transmuta en un tiempo de presencias a través del cual se nos invita a establecer un diálogo, no necesariamente equilibrado, entre el tiempo y lo temporal, es decir, entre aquello que en cierto modo el pensamiento clásico griego dejaba entrever a través de la distinción establecida entre Kronos y Kairós, entre el tiempo que todo lo gobierna y consume, y el instante que, burlándose de Kronos, brinda la ocasión y la oportunidad, esa inasible y difusa realidad que quedando concebida como momento y lugar —y, por tanto, como inevitable presencia— jamás llega y siempre pasa.

Ahora bien, acabamos de señalar en un párrafo precedente que la acción rehúye el camino del contar, sin embargo, en Esther Ferrer el rechazo del relato se acompaña de un relatar del tiempo que, curiosamente, queda en diversos momentos acompañado de un específico contar. Un contar que en modo alguno es relatar y que, al no buscar ni la narración de lo anecdótico ni la elucubración sobre el detalle, cuestiona cualquier fabulación, hecho que posibilita la recuperación de un contar —entendido como nombrar numérico— que pivotando en torno al tiempo va a quedar circunscrito al espacio del cómputo y de la enumeración. Debido a ello, en la ya mencionada acción de *Las cosas*, los objetos que con regularidad y escepticismo expresivo —aunque no necesariamente carentes de indiferencia— la artista va colocando uno tras otro sobre su cabeza —objetos que de



bakien munduan sartzen zarenean, denbora guztian kontaktzen ari zarenez, zenbakiak zure bizitzaren segunduak bezala dira»). Zenbatzea kontatu eta izendatzea, hasiera batean pentsa daitekeenaren aurka, ez da kopurua zehazteko ariketa hutsa. Egia izanik ere zenbatzeak izari fisiko bat neurtzeko sistema duela aipagai, artistaren asmoak helburu horretatik urruntzen gaitu. Zenbatzeak, ikuspuntu horretatik, ez ditu berez kantitateak adierazten, aitzitik, objektibotasuna –eta, aldi berean, subjektibotasuna– gainditzten duten errealitateak izanik ere, ez dute beren izaera erreala galtzen, kalkulua eta matematika eragiketa, aurrerago sakonago azalduko dugun bezala, arrazoibide desplazatua baitira.

Desplazatze horrek benetan dakarrenaren adibide garbia daukagu 1861 lanean. 2008. Urtean aurkeztu zen MNCARS-ek *performance*ari eskaini zion nazioarteko topaketan (*El arte es acción*). 1etik 1861ra bitarteko zenbaketa ordenatu eta diziplinatua zen, eta zenbaketa horretan, artistari bere kontakizun zenbakituan jarraitu ahal izan ala ez, kontatutakoak –eta kantatutakoak– diziplinarik gabeko nahasmendu zuritu gabea zuen aipagai: 2007. Urtean Europako Erkidegoko muga igarotzen saiatzean hildako etorkin klandestinoen kopuru ofiziala.

Ekintza-omenaldian erabilitako zenbakiak errealitate jakin bati zifra batzuk ematen dizkion arren, begien bistakoa da errealitateak gainditu egiten duela kuantifikatze hori, hemen zenbakitzen denak ez baitu neurketa bat mugatzen, baizik eta gure neurtzeko gaitasuna probatzen baitu. Aipatu dugun eran, lan honetan kalkulua ez dagokio eragiketa razional bati –ez gaude zenbaki huts baten aurrean, eta are gutxiago bidezko zenbaki baten aurrean–, desarrazoi eragiletzat jo ahal izango genukeenari baizik, arrazoi desegokitu bati, zeinaren bidez zenbakizkoa ez den errealitate bat –bai, ordea, zenbagarria– zenbakiaz harago eratu eta dezifratzera gonbidatzen duen.

El tiempo de la performance,
